


Año LII. urtea
129 - 2020
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskarazko erlatibo aposatuen azterketa diakronikoa

Dorota KRAJEWSKA

Euskarazko erlatibo aposatuen azterketa diakronikoa

A diachronic analysis of apposed relative clauses in Basque

Un análisis diacrónico de las relativas apositivas vascas

Dorota KRAJEWSKA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
dorota.krajewska@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-6909-985X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.4>

Ikerketa hau «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» [GIC10/83, IT486-10] ikerketa-talde iraunkorraren (EJ) eta «Monumenta Linguae Vasconum V» [FFI2016-76032-P] proiektuaren (MICINN) barnean egin da.

Jasotze data: 2020/03/06. Behin-behineko onartze data: 2020/04/23. Behin betiko onartze data: 2020/05/05.

LABURPENA

Artikulu honetan euskarazko erlatibo aposatuak aztertzen dira ikuspuntu diakronikotik. XVI-XIX. mendeetako testuen corpus batean oinarrituta, erakusten dut erlatibo aposatuek hainbat ezaugarri berezi dituztela: testuinguru nahiko finko batzuetan agertzeko joera dute eta ezaugarri sintaktikoetan aldentzen dira erlatiboazko beste egitura batzuetatik. Bestalde, corpusean hauteman daitezkeen aldaketa diakroniko batzuen berri ere ematen dut.

Gako hitzak: sintaxi diakronikoa; perpaus erlatiboak; erlatibo aposatuak.

ABSTRACT

This paper analyses, from a diachronic perspective, Basque apposed relative clauses. On the basis of a 16th-to-19th-century texts corpus, I show that apposed relatives have a series of special properties: they tend to be used in a few quite well defined contexts and syntactical properties which differ from other Basque relative constructions. I also describe the diachronic changes visible in the corpus data.

Keywords: diachronic syntax; relative clauses; apposed relatives.

RESUMEN

El presente trabajo estudia desde un punto de vista diacrónico las construcciones relativas apositivas vascas. Basándome en un corpus de textos de los siglos XVI-XIX, demuestro que las relativas apositivas tienen una serie de características especiales: suelen aparecer en unos contextos bastante bien definidos y tienen propiedades sintácticas diferentes de las demás construcciones relativas vascas. Por otra parte, también describo los cambios diacrónicos que se pueden apreciar en el corpus.

Palabras clave: sintaxis diacrónica; oraciones relativas; relativas apositivas.

1. SARRERA. 2. ATARIKOAK. 2.1. Erlatibo aposatuak zer diren. 2.2. Helburuak. 2.3. Corpusa. 3. ERLATIBO APOSATUAK TESTUETAN. 3.1. Maiztasuna. 3.2. Aposatuak noiz erabiltzen diren. 3.3. Ezaugarri gramatikalak. 4. ONDORIOAK. 5. LABURDURAK. 6. ERREFE-RENTZIAK.

1. SARRERA

Lan honek euskarak erabiltzen dituen erlatiboazko hainbat egiturari buruzko azterketak (Krajewska, 2016, 2018, prentsan) osatzea du helburu, erlatibo aposatuak *-katu bat lo asko egiten duena* motakoak– aztergai hartuta.

XVI-XIX. mendeetako testuen corpus batean oinarrituta, erlatibo aposatuei ikuspuntu diakronikotik begiratzen diet hemen. Oro har, erakusten dut testu historikoetan erlatibo aposatuek hainbat ezaugarri berezi dituztela: egitura nahiko zehatz batzuetan agertzeko joera dute eta ezaugarri sintaktikoetan aldendu egiten dira erlatiboazko beste egitura batzuetatik. Bestalde, corpusean hauteman daitezkeen aldaketa diakroniko batzuen berri ere ematen dut.

Artikulu honela dago egituratuta: 2. atalean erlatibo aposatuak definitzen dira, lanaren helburuak ezartzen dira eta erabilitako corpusa zehazten. 3. atalak corpusaren azterketaren emaitzak aurkezten ditu, egituraren maiztasuna (3.1), erabileraren testuinguruak (3.2) eta ezaugarri sintaktikoak (3.3) kontuan hartuta. 4. atalak ondorioak biltzen ditu.

2. ATARIKOAK

2.1. Erlatibo aposatuak zer diren

Izen aurreko modifikatzaileak (genitiboak, *-ko* sintagmak eta erlatiboak, jokatuak zein jokatugabeak) ardatza den izen sintagmaren ondoren jartzea posible da euskaraz, aposizioaren bidez, adibide hauek erakusten duten bezala:

- (1) mandamentuak Iaun goikoaren legekoak (Bet)
- (2) erremedioa gach gustiena (Kap)
- (3) koroa errenes eginikakoa (BerM)

Dena den, sintaxi hori erlatiboekin da ohikoena, eta gainerako modifikatzaileen kasuan adibide gutxi daude. Euskararen kasua ez da ezohikoa, izen aurreko erlatiboak erabiltzen dituzten beste hizkuntza batzuek ere onartzen baitituzte egitura aposatuak (Lehmann, 1984, 203-204. or.).

Erlatiboen sintaxiari dagokionez, erlatibo aposatuak eta txertatuak bereizten dira (Lehmann, 1984, 1986). Txertatuan perpaus erlatiboak eta ardatzak perpaus nagusiaren osagarri den izen-sintagma (IS) konplexua osatzen dute; aposatuan, aldiz, erlatiboak ez da perpaus nagusiaren parte, eta ardatza eta erlatiboak ez daude IS berberaren barruan. Definizio hori egitura hauek betetzen dute euskaraz: *zein* erlatiboek (4), *bait-* duten erlatiboek (5) eta *-en* menderagailua duten erlatibo aposatuek (6) (Euskaltzaindia, 1999, 245. or.).

- (4) gizon zuhur baten pare [zeiñek bastitu baiduke bere etxea harriaren gaiñean] (Harand)
- (5) Anaya, igorico darauat goutumbat [jaunac eman baytaraut galcerdy cetazko baten barnean] (Seinichen gutuna, Mitxelena, 1990, 3.2.8)
- (6) zuhaitz alferra [fruiturik iasaiten eztuena] (Ax)

Lan honetan (6)-ko egitura aztertuko dut. Terminologia dela eta, hainbat izen erabili dira egiturari buruz hitz egiteko: sasi-extraposatuak (Cid Abasolo, 1987; De Rijk, 1972a, 1972b), *appositive* ‘apositiboak’ (Oyharçabal, 2003), eta aposatuak (Cid Abasolo, d. g.; Euskaltzaindia, 1999). Azkena erabiliko dut lan honetan.

Euskarazko erlatibo aposatuetan (7) IS bati erlatibo librea¹ eransten zaio (De Rijk, 1972b, 144. or.; Oyharçabal, 1987, 2003), (8)-n eskematikoki adierazten den moduan. Erlatiboak eta ISk kasu berbera dute normalean: (7)a-n absolutiboa, eta (7)b-n, ergatiboa.

- (7) a. Baldin [*presenteko denbora haur*], [orai eskuen artean duguna,] enplegatzen ezpadugu ongi (Ax)
- b. Baiña [*zuk*], [Iainkoa miserikordios dela diozunorrek], aditu behar ditutzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere (Ax)
- (8) [aita gurea] [çeruetan zagoçana] (Kap)
- [izen-sintagma(ABS)] [erlatiboa(ABS)]

1 Erlatibo libreak aurrekaririk edo ardatzik gabeko erlatiboak dira. Horien artean Oyharçabalek (2003) hainbat azpi-klase bereizi ditu: (a) ardatza ezabatu arren, testuinguruak argi uzten du zein den (*Oraintxe sartu dena nire laguna da*), (b) erlatibo generikoak (*Ez dakienak dakitenei galda biezaie*), (c) predikatuak diren erlatiboak (*Liburu hau da lagunek iaz eskaini zidatena*), (d) erlatibo aposatuak, (e) erlatibo extraposatuak (*Zerbeit gertatu zitzairen orduantxe ederki lotsatu zituena*), eta (f) hitzun guztiek onartzen ez dituzten esaldi osoa modifikatzen duten erlatiboak (*Zozotzat hartzen nau, gustatzen ez zaidana*).

Izen aurreko (IAko, (9)) eta izen osteko (IOko, (10)) egituretan ez bezala, beraz, erlatibo eta horrek modifikatzen duen IS ez daude sintagma berean.

(9) [[gizonek erran dukeiten] hitz alfer guziaz] (LeizTest)

(10) [arbore [fruktu onik egiten ezduen] guzia] (LeizTest)

(7)-an erlatibo librea eta modifikatzen duen IS elkarren ondoan daude, baina posible da bien artean perpaus nagusiaren zati bat egotea. *Erlatibo extraposatu* deitzen ditu horrelakoak Oyharçabalek (2003). Oyharçabalen arabera, extraposatuak esaldiaren bukaeran doaz (11)-a. Absolutiboa edo partitiboa dute beti erlatibo horiek eta absolutiboan edo partitiboan doan IS modifikatzen dute: (11)-a edo (11)-b. Izenak beste kasu-marka bat badarama, zaila da erlatibo extraposatu bat eraikitzea (Oyharçabal, 1987, 183. or.), (11)-c adibideak, hiztun batzuentzat onargarriak, erakusten duen moduan.

(11) a. *Zerbeit* gertatu zitzaizen orduantxe [ederki lotsatu zituena]

b. Eta ez dut uste baden emazterik [ezetz ihardetsiko didanik]

c. ?gizon batekin joan nintzen, [bidea ongi ezagutzen zuena / zuenarekin]

(Oyharçabal, 2003, 806. or.)

Hemen batera aztertuko ditut aposatuak eta extraposatuak, eta *apostatu* terminoa biei erreferentzia egiteko erabiliko dut. Izan ere, Oyharçabalen sailkapena ez da guztiz garbia, erlatiboa ISri zuzenean erantzen zaionean eta biak perpausaren amaieran doazenean zalantza egin daitekeelako, aposatutzat (bi zatien artean beste osagairik ez dagoelako) ala extraposatutzat (bukaeran daudelako) hartu behar den, ondoko adibide hauetan bezala:

(12) a. Mezan daukagun presentean *Jaungoikoaren Semea* [gizon egin zena] (BerM)

b. Certaco dira *Espiritu Sainduaren çazpi dohaiñac* [lehembicico partean eçarriac direnac]? (Mat)

Perpaus erlatiboak egitura txertatuak baino gutxiago aztertu direla esan daiteke, erlatibizazioari buruzko lanetan normalean aipatzen badira ere (Cid Abasolo, d. g., 1987; De Rijk, 1972a, 1972b; Oyharçabal, 1987, 2003). Egitura txertatuak aztertzean aipatu izan dira sintaxi ezberdina dutela erakusteko eta batzuetan erabilerari buruz oharren bat egiteko, baina azterketa beregainik ez da egin. Are gutxiago kontuan hartu da egituraren historia.

2.2. Helburuak

Lan honetan nire helburua da galdera hauei erantzutea:

1. Nolakoa da erlatibo aposatuaren maiztasuna erlatibo txertatuekin konparatuta?
2. Erabileran, testuinguruari dagokionez, adibidez, berdinak dira aposatuak eta txertatuak?

3. Erlatibo aposatuak ezaugarri gramatikal bereziak ditu? Zehatzago, hauek kon-tuan hartzen ditut: ardatzaren eta erlatiboaren posizioa perpaua nagusian, ar-datzak eta erlatiboak dituzten markak, erlatibizatzen diren argumentuak, mu-rrizgarritasuna, ardatzaren semantika eta IS mota, erlatibo hautsiak eta, azkenik, perpausen luzera.
4. Diakronian, aldaketarik ikus daiteke 1-3. puntuetan aipatutako alderdiei dago-kienez?

2.3. Corpora

Erlatibo jokatuak ikertzeko erabili dudan corpora XVI. mendetik XIX. mendera arte-ko 27 testuk osatzen dute (testu oso luzeen kasuan zati bat hartu dut, behean adierazi dudan bezala):

- a. Araba: Lazarraga, *Artzain liburua* (Bilbao et al., 2010).
- b. Bizkaia: *Viva Jesus* (Ulibarri, 2010); Kapanaga, *Dotrinea*, 1656 (K. Ulibarriren transkribapena); Arzadun, *Doktrina kristianeen explikazinoa*, 1731 (KG)²; Olae-txea, *Dotrina Kristianea*, 1763 (KG); Mogel, *Peru Abarka* (1-3. elkarrizketak), 1802/1881 (KG); frai Bartolome, *Euskal Errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba*, 1816 (KG).
- c. Gipuzkoa: Otxoa Arin, *Doktrina kristianaren explikazioa*, 1713 (KG); Ubillos, *Kristau berri-ekarlea* (1. atala), 1785 (KG); Gerriko, *Kristau doktriña guztiaren esplikazioaren saiakera* (1-6. atalak), 1805 (KG).
- d. Lapurdi: Leizarraga (San Mateo, Apokalipsia), 1579 (KG); Mattered, *Dotrina Chris-tiana*, 1623 (Krajewska et al., 2017); Axular, *Gero* (1-11. kapituluak), 1643 (KG); Haranburu, *Debozino eskuarra*, 1635 (KG); Haraneder, *Jesu Kristoren ebanjelio saindua* (San Mateo), 1740 (KG); Duhalde, *Meditazioneak gei premiatsuenen gai-nean* («Bizitzeko erregela munduan prestuki bizi nahi direnentzat» atala), 1809 (KG).
- e. Zuberoa: Tartas, *Onsa hilzeko bidia*, 1666 (KG); Belapeire, *Katexima labürra*, 1696 (KG); Oloroeko *katixima*, 1706 (Padilla-Moyano, prest.); Maister, *Jesü-Kristen imitazionia* (1. eta 3. liburua), 1757 (KG); Intxauspe, *Apokalipsia, Iturriagaren Solastaldiak*, 1857 (Pagola, Iribar & Iribar, 1997b).
- f. Nafarroa Garaia: Beriain, *Tratazen da nola enzun bear den meza*, 1621 (KG); Eli-zalde, *Apezendako dotrina kristiana uskaraz*, 1735 (KG); Mikelestorena, *Zerura nai duenak ar dezaken bide erraza*, 1751 (KG); Lizarraga, *Zenbait sanduen biziak asteaz datozinak* (lehenengo 25 saindu), 1793 (KG).

2 KG: *Klasikoen Gordailu*-tik hartutako testuak.

- g. Errokaribar: Hualde Mayo, *San Mateoren Ebanjelioa*, 1855 (Pagola, Iribar & Iribar, 1997a); *Doctrina Christiaia* (Pagola et al., 1997a).

Corpus hori aztertuta, erlatibo aposatuaren 451 adibide bildu ditut. 3.1. atalean, erlatiboeko egituren maiztasunez ariko naizenean, testu horietan agertzen diren gainerako egiturak (izen aurrekoak, izen ostekoak, *bait*- erlatiboak eta *zein* erlatiboak) ere kontuan hartuko ditut. 1. taulan aztertutako adibideen kopuruak ematen dira. 3.3. atalean, aposatuak gainerako egiturekin konparatzen direnean, egitura horien lagin bat hartu da (450-500 adibide egitura bakoitzeko).

1. taula. Corpusetik ateratako erlatiboak

Egitura	Adibideak
Aposatua	451
Izen aurrekoa	2868
Izen ostekoa	506
<i>Zein</i> erlatiboa	1112
Guztira	4937

3. ERLATIBO APOSATUAK TESTUETAN

3.1. Maiztasuna

Oro har, erlatibo aposatua nahiko arrunta da, eta aztertutako testu guztietan ageri da. 2. taulak erlatiboeko egituren maiztasunak erakusten ditu, XVI. mendetik XIX. menderaino. Egitura aposatuaren erabilera ez da aldatu denbora tarte horretan. Oro har, aldaketarik garrantzitsuena *zein* erlatiboari dagokio: maiztasun txikiagoa du XIX. mendean aurreko mendeetan baino.

2. taula. Erlatibo-moten maiztasuna: IOkoak, IAkoak, aposatuak eta *zein* erlatiboak (ehunekotan)

Mendea	Adibideak	IA	IO	APO	<i>zein</i>
XVI.	444	47,5	12,8	6,5	33,1
XVII.	1489	58,4	7,9	10,6	23,2
XVIII.	1767	58	10,5	10	21,4
XIX.	931	76,7	5,7	8,3	9,3

Testu bakoitzeko aposatuaren maiztasuna 3. taulak erakusten du. Testuak IAko erlatiboaren proportzioaren arabera ordenatu dira: goian IAkoak ia bakarrik dituzten testuak ditugu, eta behean IAko gutxien dutenak. Ondorio batzuk atera daitezke datu horietatik. Batetik, taulan goiko partean dauden egile asko Larramendiren ondokoak dira eta bere eraginpean idatzi zutenenak: Mikelestorena, Ubillos, frai Bartolome eta

Gerriko. Horiek gehien-gehienetan izen aurrekoa erabiltzen dute, baina, oro har, aztertutako testu gehienetan, aposatuaren erabilera zabaldua da.

Aposatu gehien testu hauetan aurkitzen dugu: Lizarraga (% 28), Haraneder (% 15,6), Materra (% 15,6), Beriain (13,2), Kapanaga (% 12,5), Axular (% 12,3), Intxauspe (% 12,2), *Viva Jesus* (% 10,7). Beste testu batzuek aposatuaren % 8 eta % 10en artean dute: Haranburu, Otxoa Arin, Elizalde, Mogel, Leizarraga eta Arzadun. Aurkako muturrean aposatu oso gutxi duten testuak ditugu (% 3 baino gutxiago): Mikelestorena, erronkarierazko *Doctrina Christiaia*, Ubillos, Olaetxea eta Lazarraga.

3. taula. Hiru erlatibo-moten maiztasuna: IOkoak, IAkoak, aposatuak eta *zein* erlatiboak, testuz testu (ehunekotan).

Testua	Guzt.	IA	IO	APO	<i>zein</i>
Mikelestorena	153	96,1	1,3	2,6	0
Ubillos	231	95,7	2,2	2,2	0
Gerriko	154	91,6	0,6	6,5	1,3
Frai Bartolome	186	90,3	0	5,9	3,8
Duhalde	266	81,6	4,9	7,5	6
Haranburu	140	78,6	7,9	9,3	4,3
Olaetxea	95	77,9	3,2	1,1	17,9
Axular	204	76	2,9	12,3	8,8
Otxoa Arin	268	69	2,6	9,3	19
Mogel	104	63,5	23,1	8,7	4,8
Tartas	182	63,2	2,2	3,8	30,8
Materre	262	58	5,3	15,6	21
Intxauspe	221	55,2	6,8	12,2	25,8
<i>Oloroeko kat.</i>	198	54,5	12,6	6,6	26,3
Belapeire	211	54	10,4	4,3	31,3
Beriain	310	51,3	10,3	13,2	25,2
<i>Viva Jesus</i>	28	50	10,7	10,7	28,6
Lazarraga	114	49,1	0	0,9	50
Elizalde	33	48,5	3	9,1	39,4
Leizarraga	330	47	17,3	8,5	27,3
Maister	274	46,4	23,7	4,4	25,5
Haraneder	186	36,6	12,4	15,6	35,5
Kapanaga	152	32,9	16,4	12,5	38,2
Arzadun	37	29,7	27	8,1	35,1
Lizarraga	292	23,3	15,4	28,1	33,2
DoktrErr	41	17,1	29,3	2,4	51,2
Hualde Mayo	265	15,8	30,6	3,4	50,2

Testuak IAko erlatiboaren proportzioaren arabera ordenatu dira. Aposatuaren % 10 baino gehiago duten testuak grisez markatu dira.

3.2. Aposatuak noiz erabiltzen diren

Corpusetik ateratako adibideak aztertuta, argi ikusten da erlatibo aposatua askotan egitura (erdi-)finko batzuetan erabiltzen dela. Esan daiteke egitura horren ezaugarri berezia dela: Iako erlatiboak ez-markatuak dira, eta edozein testuingurutan dira egokiak, baina aposatuak agertzen diren testuinguruak murrizagoak dira. Badirudi diskurtsoaren antolaketarekin lotu behar dela erlatibo horien erabilera, eta lotura horiek deskribatzen ahaleginduko naiz atal honetan. Nolanahi ere, gaiak ikerketa sakonagoa behar lukeelakoan nago: ahozko hizkuntza kontuan hartzea beharrezkoa iruditzen zait eta, bestalde, euskarazko diskurtsoaren antolaketa edo informazio-jarioa ere ez dago behar bezala aztertuta (batez ere ikuspuntu diakronikotik).

Cid Abasolo (1987) ohartu zen erlatibo aposatuak egitura batzuetan oso ohikoak direla, gehienbat *izan* edo *egon* duten perpaus existentzialetan, nahiz eta testuinguru horietatik kanpo ere erabil daitezkeen:

- *Zenbat, nor* eta antzeko galdetzaileak dituzten galderak: adibidez, Etxepareren *Nor da guiçon modorroa harçaz orbit eztena?*.
- Beste zehaztugabeekin (*bat, asko, zenbait, zenbakiak...*): *Gorbeian artzain bat bizi zen Fernando zeritzana*.
- Ardatz plural murriztaileekin: *Baziren egunak bi litro edandakoak*.
- Ezezko existentzialetan: *Ez dago gizonik egia dionik* edo *Ez dago inor egia dionik*.

Jarraian, nire corpusetik ateratako adibideen artean askotan errepikatzen diren egitura-mota batzuk deskribatzen saiatuko naiz.

Hasteko, erakusleak edo *horra* motako adberbioak dituzten perpaus aurkezleak ditugu, gehienetan [horra x, ... dena] edo [hori da x, ... dena] motakoak (13). Nahiz eta bi perpausez –perpaus nagusiaz (aurkezleaz) eta erlatiboaz– osatuak izan, proposizio bat adierazten da normalean. (13)-b-n, esaterako, esaten dena hau da funtsean: «Sakrifikatzaile eternalak bakezko sakrifizioa Kalbarioko mendian oferendatu derautzu». Egitura horren funtzioa diskurtsoan erreferente berria sartzea dela dirudi (perpaus nagusiaren bidez), eta horren ezaugarri bat ematea (erlatiboan).

- (13) a. Haur da *bentura ona*, [ethorkizuneko bentura gaixtotik eta periletik begiratzeko gaituena] (Ax)
 b. Haur da *sacrificatçaille eternala*, [baquezco sacrificioa Calvarioco mendian oferendatu derautçuna] (Mat)
 c. huna hek eta *bertze bortz* [irabazi izan ditudanak] (Harand)
 d. Hoiek dütüzüla *zelia eta lürra* [gizonaren zerbütüko kreatü dütüzünak], prest beitaude, eta egün oroz egiten beitie, zük manü emaiten deiezüna (Mst)

- e. Haur nüzüla *zure zerbüttxaria*, [orotara prest nizana, nihauren bizitzerik zure-tako baizik] (Mst)
- f. Eta *orra* [konsiderazio gai bat], [beti gogoan erabilli bear deguna]: lau puntu oek iñoiz ere aztu bage (Gerriko)

Bigarren mota perpaus existentzialak dira (14). Eskematikoki honela adieraz daitezke: [bada x, ... dena / denik]. Gehienak *izan* aditzarekin eraikitzen dira. Ohikoa da ardatzean kuantifikatzaile eta zenbatzaile bat agertzea.

- (14) a. Othe lizateke *nehore* ere, [heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik]? (Ax)
- b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)
- c. Bada *beste tinta gorri bat* [oráno ederrágo déna] (Intxpe)
- d. Danen kasta galdubari ezarri eutsan Jaungoikuak maldezinoa: sugiak legez edo sierpiak legez pausu egiteko ta ibilteko. Bada, munduban bada *giza kastarik* [sugia legez dabilenik]: dantzaarijak dira (frBart)

Perpaus existentzialen funtzioari dagokionez, ingelesezkoak mintzagai dituela (*There is a dog in the garden* motakoak), honela azaltzen du beren zeregina Dryerek (2007, 241. or.): «From a discourse point of view, the primary function of such clauses is apparently to introduce into the discourse a participant that is new to the hearer». Perpaus existentzialari perpaus erlatiboa gehitzen zaionean, mendeko perpausaren zeregina da diskurtsoan sartzten den erreferente berri hori lehenago esandakoarekin lotzea (Fox & Thompson, 1990, 309. or.). Euskaraz antzeko zerbait dugula esan daiteke. (14)-c harturik, perpaus nagusian erreferente berri bat ezartzen da (*beste tinta gorri bat*). Beharrezkoa da aurretik esandakoarekin lotura egitea, eta funtzio hori, hain zuzen, du mendeko perpausak (*oráno ederrágo déna*, hau da, lehenago beste tinta eder bat aipatu da eta harekin konparatzeko esaten zaio hartzaileari). (14)-d adibidean antzekoa gertatzen da: erlatibo aposatuak zubia egiten du aipatutakoarekin.

Mota horren aldaera ezezko perpaus existentzialak dira (15). [ez da x-ik, ... denik] eskema duten perpaus horietan ez da erreferente berri bat sartzten, erreferente (klase) baten existentzia eza adierazi baizik.

- (15) a. Ehon ere *gaitzik ezta* [zuk khen eztirozunik] (Etxep)
- b. Ezta *gachic* / [aldia ez daroceanic] (RS, Lakarra, 1996)
- c. Ezta *maliziarik* eta ez *pensu gaixtorik*, [presuna alferrean ediren ezтитеkeienik] (Ax)
- d. Esta *mercataririq* [hiri honetan nyq onguy eçahutçen estudeniç] (Voltaire, Lakarra, 1999)
- e. hanbatetarano non ezpaitzen *populurik ez rejionerik* [on irudi zaionaren araura Iainko berririk egiten etzuenik] (LeizTest)

Hurrengo perpaus-motari *definitzailea* dei dakiok. Horren eskema askotan da [x bat, ... dena]. Ardatzak *bat* darama eta erlatiboaren bidez ardatzaren erreferentea ezaugarritzen da. Definizioak ematean erabiltzen dira askotan, baina beste testuinguru batzuetan ere ager daitezke.

Definizioen kasuan (16), (16)-c hartzen badugu, erreferente zaharraren kontzeptua («aingeruak») azaltzen da berri baten bidez («espíritu zeruko batzuk»). Erlatiboak informazio inportantea ematen du, perpaus nagusian agertu den elementuari ezaugarri batzuk ematen baitizkio.

- (16) a. *Amore bat* nahi nuque [liadutanic eguia] (Etxep)
 b. Cer da comuniñoa? *Iateco espiritualbat* [sustenteetandabena arimea, eta emaiten deussana seculaco viziçea] (Kap)
 c. Ze gauza dira Angeruac? *Espiritu zeruco baçuc* [dagoçanac beti Iaungoico omnipotenten alabanzaan] (Kap)
 d. Zer uste düzü dela Ama Birjina? *Kreatüra dohatsü bat*, [merexi hanits diana], graziaz eta berthütez bethia, eta Jesús Kristen ama (Belap)
 e. Zer da Komekazioa? *Jateko spirituale bat*, [arima sustentazen, eta bizi eternoa ematen duena] (Elizalde)
 f. Komulgazeko zaudenean, begiratuko duzu ongi, edo pensatuko, zertara zoazen, ta nor gana, edo nor datorren zu gana. Zu gana dator Jesus maitea, Jainko, ta Gizon egiazkoa, [...] *Jaun bat* [guzia dakiena, ondasunez betea, bazterrik bageko anditasuna duena] (Mikel)
 g. Jokua da *olgeeta bat*, berez, [inok bere kondeneetan ez dabena] (frBart)

(17)-ko adibideak, (16)-koak ez bezala, diskurtso narratiboaren adibideak dira. Perpaus nagusian –gramatikalki objektu edo subjektu iragangaitz bezala– sartzen den erreferente berriaren funtzioa istorioa aurreratzea dela esan daiteke. Hemen ere mendeko perpausak ezaugarri bat ematen du, eta adierazten den informazioa berria da. Askotan hor esaten dena istorioa aurrera joan ahala inportante bihurtzen da, (17)-c-n bezala (erlatiboak ematen duen informazioarekin lotutako zatiak azpimarratu dira).

- (17) a. Eta handik iragaiten zela Iesusek ikus zezan *gizon bat* peaje lekuan iarria [Mattheu deitzen zenik] (LeizTest)
 b. Eta orduan bazuten *presoner notable bat*, [Barabbas deitzen zenik] (LeizTest)
 c. Eta huna, zen han *gizon bat* [eskua eihar zuenik]: eta interroga zezaten, ziote-la, Sori da Sabbath egunean sendatzea? haur zioiten, hura akusa lezatenzat. [...] Orduan diotso gizon hari, Heda ezak eure eskua. Eta heda zezan, eta berzea bezain senda zedin. (LeizTest)

Era horretako perpausak oso arruntak dira ipuin bat hasteko (*Bazen behin...*). Gauza bera beste hainbat erataraz daiteke (18), baina Cid Abasoloren (1987, 623. or.) arabera, (b) da naturalena eta erabiliena:

- (18) a. Fernando zeritzan artzain bat bizi zen Gorbeian.
 b. Gorbeian artzain bat bizi zen Fernando zeritzana.
 c. Artzain bat, Fernando zeritzana, bizi zen Gorbeian.

Azkenik, bokatioak ditugu, edo deia egitean izen propioei eransten zaizkien erlatiboak. Testuetan gehien agertzen dena otoitzeko *aita gurea zeruetan zaudena* formula

ezaguna da, (19)-d-n bezala. Oro har, erlijio-testuetan behintzat, ohikoenak dira otoi-tzetan. Testuinguru markatuak badira ere, informazioaren jarioarekin lot daiteke horien erabilera ere: erlatibo aposatuari esker ardatza lehen posizioan dator, eta, dirudie-nez, hori da posiziorik nabarmenena. Erlatiboak, berriro ere, ezaugarri batzuk ematen ditu; halere, kasu horretan esan daiteke ez duela oso informazio inportantea adieraz-ten, gehienetan ezaguna baita.

- (19) a. *Aingeru saindua*, [ene presunaren beguirateco cargua laincoaren pietatez hartu duçuna] (Mat)
 b. *O Birjina Maria* [guziz urrikari gaitutzuna], zeruetako erregina baderauzkitzut othoiz hauk (Haranb)
 c. *O Jesüs* [krüzifikatü izan dena], gure bihotziala jin baledi (Mst)
 d. *Pater noster, aita gurea* [çeruetan zagoçana] (Kap)

Aipatu diren lau perpaus-motak nahiko antzekoak dira diskurtsoaren antolaketari dagokionez. Bokatioak apur bat bereziak dira, markatuak baitira: erregistro jasoare-kin eta testu-genero bereziekin (erlijio-testuekin) lotzen dira gehienbat, eta eguneroko hizkeran ez dirudite oso ohikoak. Gainerakoak, nahiz eta hemen idatzizko testuetan bakarrik ikertu, arruntagoak direla pentsa daiteke. Guztien funtzioa da diskurtsoan erreferente berri bat sartzea, batez ere aurkezletan eta existentzialetan. Perpaus erlatiboaren bidez erreferente hori ezaugarritzen da. Karakterizazio-funtzioa du erlati-boak eta ez identifikazioarena; horregatik ez-murrizgarriak dira aposatuak askotan (Cid Abasolo, 1987 ohartu bezala). Perpaus erlatiboak zeregin batzuk izan ditzake: aurreko diskurtsoarekin lot dezake erlatiboak erreferente berria, baina beste batzuetan informazio berria ematen du.

Alderdi diakronikoari begiratuta, gaiak ikerketa zehatzagoa behar badu ere, diru-dienez, testu zaharrenetan aposatuak gehiagotan agertzen dira atal honetan deskri-batutako perpaus-motetan; testu berriagoetan, aldiz, testuinguru horietaz gain beste batzuetan ere erabiltzen dira. Leizarragaren San Mateoko 20 adibide hartuta, guztiak nahiko erraz sailka daitezke: definitzaileak ugariak dira (ikus (17) adibidea), baina exis-tentzial, bokatio eta aurkezle batzuk ere badaude.

3.3. Ezaugarri gramatikalak

Atal honetan aposatuen hainbat ezaugarri gramatikal aztertuko ditut: ardatzaren eta erlatiboaren posizioa perpaus nagusian, ardatzak eta erlatiboak dituzten kasu-atziz-kiak, erlatibizatzen diren argumentuak, murrizgarritasuna, ardatzaren semantika eta IS mota, erlatibo hautsiak eta, azkenik, perpausen luzera.

3.3.1. Posizioa perpaus nagusian

Erlatibo aposatuek perpaus nagusiaren bukaeran agertzeko joera dute: azertu-takoen % 68 azken posizioan doaz (20). Askoz gutxiagotan aurkitzen ditugu ardatza eta erlatiboa perpausaren hasieran (21), eta gutxien, erdian (22). Erlatibo txertatue-kin konparatuta, bukaeran agertzen diren erlatibo aposatuen proportzioa handiagoa da, batez ere IAkoekin alderatzen badugu (% 50); IOkoek aposatuen antz handiagoa

dute (% 64). Halere, *zein* erlatiboak dira esaldiaren amaieran gehien agertzen direnak (% 80).

- (20) a. Haur da *sacrificatçaille eternala*, [baquezco sacrificioa Calvarioco mendian oferendatu derautçuna] (Mat)
 b. Eskribitu ote deban *bersorik, edo paperik* [afizio torpea aditzera ematen debanik] (OA)
 c. Badira *demborac eta harouac* [igaraitera utzi behar ez tirenac] (Intxpe)
- (21) *Ethorkizuneko gauzak*, [fortunaren eskuan eta benturan daudezinak], nahi ditutzu oraidanik gobernatu (Ax)
- (22) Orduan ioan izan da *hamabietarik bat* [Iudas Iskariot deitzen zena] Sakrifikadore prinzipaletara (LeizTest)

Gehienetan erlatiboa ardatzaren eskuinean agertzen da, tartean beste osagairik egon gabe. Nik aztertutako testuetan 27 adibidetan bakarrik (451tik, % 6) banatzen dituzte beste hitz batzuek ardatza eta erlatiboa (23). Tartean agertzen den zatia simplea izan ohi da (aditza eta/edo osagarri bat), normalean hitz batekoa edo bikoia.

- (23) a. Eta beha nezan, eta huna hodei xuri bat: eta hodei gainean *norbeit* zegoen iarririk [gizona irudi zuenik] (LeizTest)
 b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanik] (Mat)
 c. Eta guztien buruan ikhas ahal dezakegu eta athera hunetarik, *erhokeria handia* dela, [guk geure buruan daramaguna], eta erraiten duguna (Ax)
 d. Razoe orregatik, bada, dago obligaturik penitentea zirkunstantzia ori, eta *one-lako zirkunstantzia moeta guziak* konfesatzera [edozeinereko beste pekatu moetan arkitzen diranak] (OA)

3.3.2. Kasu-komunztadura

Erlatibo aposatuak gehienetan absolutiboan dauden ISei lotzen zaizkie eta halakoetan erlatiboa ere absolutiboan doa. Beste marka bat badu ardatzak, ohikoena da marka bera erlatiboari ere eranstea:

- (24) a. Egun hartan ethor zitezen harengana *Saduzeuak*, [resurrektionerik ez teldioitena], eta interroga zezaten (LeizTest)
 b. Baiña *zuk*, [Iainkoa miserikordios dela diozunorrek], aditu behar ditutzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere (Ax)
 c. Ezta *maliziarik* eta ez *pensu gaixtorik*, [presuna alferrean ediren ez titekeienik] (Ax)

Corpusetik ateratako adibideen artean gehien-gehienetan –adibideen % 86tan– ardatza eta erlatiboa absolutiboan doaz (4. taula), baina posible da bietan aurkitzea ergatiboa, partitiboa eta, gutxiagotan, beste hainbat marka ere.

4. taula. Ardatzean eta erlatibo aposatuan ageri diren markak (adibideen kopuruak eman dira)

Markak	Adibideak
ABS-ABS	389
PART-PART	19
ABS-PART	17
ERG-ERG	13
DAT-DAT	3
INES-INES	2
KOM-KOM	2
INS-INS	1
GEN-GEN	1
ABL-ABL	1
PART-ABS	1

Absolutibo-partitibo konbinazioa pixka bat berezia da, ez delako marka berbera ageri bi osagaietan (partitiboa ezin delako agertu lehen perpausean):

- (25) a. Eta handik iragaiten zela Iesusek ikus zezan *gizon bat* peaje lekuan iarria [Matheu deitzen zenik] (LeizTest)
 b. Nor izanen da zuetarik *gizona*, [ardi bat duenik]: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen eztuena? (LeizTest)
 c. Othe lizateke *nehor* ere, [heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik]? (Ax)
 d. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)

Adibide gehien Leizarragak ditu (17tik 13), eta adibide bana Materrak, Axularrek, Beriainek eta Gerrikok. Beraz, badirudi testu zaharretan aurkitzen ditugun aposatuena ezaugarri bat dela. Behin partitibo-absolutibo bikote nahiko bitxia ageri da; zehatzago, Kapanagaren testuan:

- (26) Bere conuersaciño, edo platiqueetan esan cebeique *burlaco barbaric*, [beste-renbat mindu, edo aserratu daiana] (Kap)

Gaur egungo testuetan kasu-marka ezberdina duten adibideak aurki daitezke. Oyharçabalen (1987, 184. or.) arabera, horrelako adibideen artean ohikoena da ardatza ergatiboan eta erlatiboa absolutiboan egotea: *Gure Jainkoak*, [beti xuxen *da-bilena*], *ongi gidatzen baitu*. Oyharçabalek dioenez, erlatibo aposatuak koma-arte bezala tratatzeko joera dago, eta horregatik falta da kasu-komunztadura. Rebuschik (2003, 468. or.) esaten du komunztadura ez dela nahitaezkoa, baina ematen dituen adibideak XX. mendekoak dira. Nik aztertutako testuetan ez da komunztadura gabeko adibiderik ageri.

3.2. atalean deskribatu diren perpaus-motak eta kasu-komunztaduraren gaineko datuak lotuta daude. Esan bezala, ardatzak eta erlatiboak gehienetan absolutiboan doaz. Horren arrazoia hau da: perpaus-klase horietan aditz iragangaitza dugu askotan (*izan* edo *egon*), eta ardatza eta erlatiboa horren argumentu bezala azaleratzen dira; beste batzuetan, objektu zuzen bezala agertzen dira (**edun* aditzarekin, baina ez horrekin bakarrik).

3.3.3. Erlatibizatzen den argumentua

Erlatibizatzen den argumentuaz hitz egiten denean, ardatzarekin ko-erreferentziala den ISk menpeko perpausean duen funtzioaz ari gara. Horrela, *gizona [etorri dena] ikusi dut* perpausko erlatiboan subjektu iragangaitza erlatibizatzen da, *gizona etorri da* baitago oinarrian. Era berean, *elefantea [atzo ikusi nuena] etorri da* perpausko objektua erlatibizatzen da.

Erlatibo aposatueta ia beti subjektu iragangaitzak ((27)-a, adibideen % 40), iragankorrak ((27)-b, % 37) eta objektuak ((27)-c, % 22) erlatibizatzen dira (5. taula)³. Aztertu diren 451 adibideetatik hirutan soilik dugu beste kasu-marka bat: bitan inesiboa (28) eta behin datiboa (29). Gainera, horrelako perpausak ez dira agertzen nahiko berandu arte (XVII-XVIII. mendera arte).

- (27) a. Ene espiritua alegueratu duçu, eta *ene arima*, [lehen hil cena], piztu (Mat)
 b. *Zuhaitz ttipiak*, [oraiño errorik ez tutenak], ezin athera ditzakezu (Ax)
 c. Atrarik Sazerdotea rebeztiturik sakristiatik Meza erratera, *lenbiziko itzak* [erraten dituenak] dirade (BerM)
- (28) a. *iudizioko egun izigarrian*, [neure eginak gatik kontu eman beharko dudan hartan] (Haranb)
 b. Bainan ethorriko da *denbora* [esposa khenduko zaiouena] eta orduan dire barrutuko (Harand)
- (29) eta abisaturik Ziudadeko Jaunei, zela *bekatari pobre bat*, [etzegokiona] [armen itekoa], despeitu ze andik (Lizarg)

5. taula. Erlatibo aposatueta erlatibizatzen diren argumentuak, IAko, IOko eta *zein* erlatiboarekin konparatuta (ehunekotan)

Egitura	Adibideak	Objektua	Subj. (abs.)	Subj. (erg.)	Leku-kasuak	Besteak
APO	451	22,2	40,4	36,8	0,4	0,2
IO	454	28,4	46,5	24,2	0,4	0,4
IA	493	47,9	33,7	7,7	8,9	1,8
<i>zein</i>	500	7,8	26,8	22	21,4	22

3 Testuz testuko datuak Krajewska (2017, 58-60. or.) lanean eman ditut.

Oyharçabalek (2003, 797. or.) ez ditu erlatibizazioaren murriztapenak aipatzen erlatibo aposatuak deskribatzean, baina bai erlatibo libre generikoetan, non, dirudienez, antzeko murriztapenak ditugun. Subjektuak eta objektuak erraz erlatibizatzen dira generikoetan, baina gainerakoak zailak edo ezinezkoak dira: **Etorri naizenetik joan behar zenuke* ‘You should go through the way I came’ (Oyharçabal, 2003, 797. or.). Testu zaharretan horrelakoak agertzen direla dio, adibide hau emanik: *Otoitz eginen duzu zeure adiskide guziak eta [obligazio duzunak] gatik* (Haranb). Erlatibo aposatuei dagokienez, nire corpusean subjektuarekin eta objektuarekin egindako perpausetz gain hiru adibide baino ez dira ageri; beraz, ez dirudi testu zaharretan ohikoagoak direnik absolutiboa eta ergatiboa ez beste kasuekin egindako aposatuak. Kontrakoa esanenezake: XVIII. mendetik aurrera aukera berriak hasten dira agertzen.

Oro har, beraz, Keenan eta Comriren (1977) *Accessibility Hierarchy* delakoaren arabera (subjektua > objektu zuzena > zeharkako objektua > zehar kasuak > genitiboa > konparaketaren objektua), erlatibo aposatuetan erlatibizatzeke errazena diren argumentuekin eratzen dira perpausak, hau da subjektu eta objektuekin. Ikuspuntu diakronikotik, halere, aukerak zabaltzen doazela ikus dezakegu, hierarkiaren beheargoko argumentuak ere erlatibiza baitaitezke XVIII. mendetik aurrera, mota horretako adibideak nahiko urriak badira ere.

3.3.4. Murrizgarritasuna

Oro har, erlatibo murrizgarri/ez-murrizgarrien arteko bereizketa ez da euskararen gramatika islatzen beste hizkuntza batzuetan (ingelesean, esaterako) gertatzen den moduan (De Rijk, 1972a, 1972b): izen aurreko erlatiboak murrizgarriak izaten dira normalean, baina ez-murrizgarri ere izan daitezke. Aposatuen kasuan, Oyharçabalen (2003, 804-805. or.) arabera, erlatibo aposatuak ez-murrizgarriak dira. Bereizketaren definizio hau darabil Oyharçabalek (2003, 804. or.):

Restrictive relatives are defined here as head modifiers that make the whole NP specific. When the NP is specific by itself, as, for instance, when the head is a proper noun, the relative is non-restrictive. But the same thing occurs when the whole NP is not specified, i.e. when the restriction carried by the relative isn't enough to make the NP specific (even if it contributes to the determination of the NP in a direct manner).

Aposatuek, beraz, informazio gehigarria eman diezaiekete ardatz zehaztuari (30)-a, generikoari (30)-b edo zehaztugabeari (30)-c, baina ezin dute izen baten erreferentzia zehaztu (30)-d (Oyharçabal, 2003, 805. or.).

- (30) a. Zuk aipatutako herriak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira.
 b. Herri tikiak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira. ('Little villages, those which have less than 500 inhabitants, are in a bad situation')
 c. Herri batzuk, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira. ('Some villages, which have less than 500 inhabitants, are in a bad situation')
 d. *Herriak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira. ('The villages which have less than 500 inhabitants, are in a bad situation.')

Testuetan Oyharçabalek esandakoaren kontra doazen adibide gutxi batzuk badaude, halere. Izen propio edo erreferente bakarreko bat modifikatzen denean, argi dago erlatibo ez-murrizgarria dugula eta aposatuak askotan testuinguru honetan erabiltzen dira:

- (31) a. *O Birjina Maria* [guziz urrikari gaitutzuna], zeruetako erregina baderauzkitzut othoiz hauk (Haranb)
 b. *O Jesüs* [krüzifikatü izan dena], gure bihotziala jin baledi (Mst)
 c. Pater noster, *aita gurea* [çeruetan zagoçana] (Kap)

Beste kasu batzuetan, aldiz, ez dago oso argi. (32)-n badirudi erlatiboak informazio gehigarria ematen duela eta ez duela erreferentzia murrizten. (33)-n eta (34)-n erlatiboa kenduz gero, esaldiek ez dute zentzu handirik (?? *Zer esan gura dau «kristiñaua»? Gizona.*) eta, horregatik, murrizgarritzat hartu behar dira.

- (32) a. Eta huna, zen han *gizon bat* [eskua eihar zuenik] (LeizTest)
 b. *Espiritu zeruco baçuc* [dagoçanac] [beti Iaungoico omnipotenten alaban-zaan] (Kap)
 (33) a. Fedea manera onetan konfesazea da *gauza bat* [guziz Iaungoikoari agradazen zaiona], eta egiten duenaren dako probetxu anditakoa (BerM)
 b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)
 (34) a. Zer essâ gura dau christiñaua? *Guiçona* [daucana] [christoen fedea] cein confessadu, eta professadu eban Baupismuâ gordeetaco (Kap)
 b. Alaber *arimak* [purgatorioan daudenak] sokorrazeko Iaungoikoak libra dizan ango pena, eta trabaju andi aietatik (BerM)

3.3.5. Ardatzaren semantika eta IS mota

Erlatiboaren ardatzaren semantikari dagokionez, izen hori biziduna ala bizigabea den da aztertu dudana alderdia. Euskararen corpusaren ezaugarriak kontuan hartuta, bizidunen artean Jainko edo aingeru bezalako izenak ere sartu ditut.

Erlatibo aposatuen erdietan baino gehiagotan da ardatza biziduna (34), IAKo erlatiboetan baino askoz maizago (6. taula). IOkoak, *zein* erlatiboak eta aposatuak konparatuta, guztietan bizidunen proportzioa nahiko handia da, baina aposatuetan handiagoa. Aposatuen eta IA/IOko erlatiboen arteko alde hori nabarmena da bai Ipar EHko testuetan, bai Hego EHkoetan, nahiz eta azken horietan bizidunen proportzioa txikiagoa izan (Ipar EHko testuetan aposatuen % 67tan ardatza biziduna da, eta Hego EHkoetan, % 47tan).

- (35) a. Nor izanen da zuetarik *gizona*, [ardi bat duenik]: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen eztuena? (Leiz)
 b. Nork sinhetsi zukeien *Israeleko semeak*, [itsas-bazterrean, hain herstura handian izan zirenak,] Faraonen eskuetarik itzuriko zirela? (Ax)
 c. Zeruetako Erresumak iduri du oraiño *gizon bat* [tratuan hari dena] eta [perla ederren bilha dabillana] (Harand)

6. taula. Ardatzaren semantika: erlatibo aposatuak gainerako egiturekin konparatuta

Egitura	Adibideak	Bizidun	Bizigabe
APO	451	57,2	42,8
IO	454	39,9	60,1
IA	493	17,8	82,2
<i>zein</i>	500	42,8	57,2

Aposatuetan agertzen diren ardatzekin lotutako beste alderdi bat da IS hori mugatua den ala ez. 7. taulak erakusten duen bezala, mugatzailea (-a artikulua definitua edo erakuslea) dute adibide gehienek hiru egituratan. Zenbatzaile zehaztugabeak (*asko*, *anitz*) edo orokorrak (*guzti*, *oro*) gutxitan agertzen dira egitura aposatuan; *bat* duten adibideak, berriz, ohikoagoak dira aposatuetan gainerakoetan baino. Lotuta egon daiteke hau 3.2. atalean deskribatu diren perpaus-motekin: horietako gehienetan, hain zuzen, *bat* mugatzailea ohikoa da.

7. taula. Ardatzaren semantika: erlatibo aposatuak gainerako egiturekin konparatuta

Egitura	Adibideak	Artikulua/erakuslea	Zenb. zehaztugabea	<i>bat</i>
APO	451	71,4	0,9	27,7
IO	454	80,6	8,4	11
IA	493	86,6	7,9	5,5
<i>zein</i>	500	65,8	1,4	18,4

3.3.6. Erlatibo hautsiak

Ardatzik gabeko erlatiboetan hitz-ordena malguagoa da, ardatza agerian duten erlatiboetan baino: menderagailua daraman aditzak ez du mendeko perpausaren azken posizioan agertu behar, eta perpausaren zati bat aditz horren ondoan ager daiteke (De Rijk, 1972b, 142. or.; Oyharçabal, 1987, 176. or.). Izen ondoko erlatiboen artean ere nahiko ohikoak dira erlatibo hautsiak (Krajewska, 2017, 62-63. or.). Izen aurreko egituratan, aldiz, ez-gramatikala da erlatiboan doan aditzaren eta ardatzaren artean beste zerbait sartzea (**etorri zen atzo gizona*) edo erlatiboaren parte bat ardatzaren ondoan jartzea (**etorri zen gizona atzo*).

Nik aztertutako testuetan, erlatibo aposatuetan adibideen % 18tan (82/451) perpausaren zati bat aditzaren ostean agertzen da, ondoko adibide hauetan bezala (erlatiboaren bi zati kortxeteen bidez bereizi dira)⁴:

4 Mota honetako adibideetan itzulpenaren eragina ezin dela baztertu. Oro har, testua itzultzeak hitz-ordena edo erlatiboeko egituraren aukeraketan eragin dezake, baina aparteko ikerketa eskatzen du gai horrek.

- (36) a. *Simon* [erraiten dena] [Pierris] [LeizTest]
 b. P. Zer essâ gura dau christiñaua? R. *guiçona* [daucana] [christoen fedea] (Kap)
 c. *lenengo graciie*, [eguiten gatucena] [Iangoicoen seme] (VI)


Perpauis hautsien proportzio handiena ere Nafarroa Garaian (adibideen % 46) eta Bizkaian (% 30) aurkitu dut. Gainerako eremuetan askoz txikiagoa da. Lapurdin, adibidez, egitura aposatuaren adibide asko atera ditut testuetatik, baina % 1,3 bakarrik dira hautsiak.

3.3.7. *Perpauisaren luzera*

Ezaguna da sintagmaren konplexutasunak hitz ordenari eragin diezaiokeela. Erlatiboaren kasuan, perpauis bi eratara (izenaren aurrean edo ostean) kokatu ahal den hizkuntzetan, erlatiboaren konplexutasunak posizioarekin zerikusia izan dezake: adibidez, kokagune bat erabil daiteke bakarrik perpauis oso motza denean. Izenaren eskuin hedatzen diren erlatiboaren erabilera perpauisaren luzerarekin lotu da euskal gramatikan. Adibidez, aposatuen kasuan, Cid Abasolok (d. g.) esaten du egitura horietan erlatiboa izen aurrekoetan baino luzeagoa izan daitekeela ulermena eragotzi gabe.

Ikerketa honetan perpauisaren luzera, hitz-kopurutan zenbatuta, hartu dut konplexutasunaren gutxi gorabeherako adierazle gisa. Nire corpuseko erlatibo aposatuen batez besteko luzera 5,6 hitzekoa da. IOkoak eta IAKoak baino luzeagoak dira (3,8 eta 3,5 dute horiek, hurrenez hurren). Luzeenak, halere, *zein* erlatiboak dira (6,4 hitz *zein* ize-nordaina kontatu gabe). Aposatuen 20 adibide baino gehiago duten testuak hartuta, aposatuak sistematikoki luzeagoak dira IOkoak eta IAKoak baino (nahiz eta batzuetan aldea txikia izan): Axularren testuan 6,0 hitz dute aposatuek, eta 3,4 IA/IOkoek; Beriainenean 4,7 eta 3,4; Duhalderenean 8,5 eta 4,0; Haranederrenean 4,9 eta 3,4; Intxausperenean 4,9 eta 3,3; Leizarragarenean 4,1 eta 3,6; Materrarenean 6,7 eta 4,1; eta Otxoa Arinenean 7,8 eta 4,2.

1. irudian ikus daitekeen moduan, zenbat eta luzeagoa mendeko perpauis, orduan eta handiagoa da aposatuen eta *zein* erlatiboaren proportzioa. Hiru hitz dituzten erlatiboekin, esaterako, IA/IOko erlatiboak agertzen dira adibideen % 63tan, baina bost hitz baino gehiago duten perpauisak gehienetan aposatuak edo *zein* erlatiboak dira. Perpauis oso luzeekin (hamar hitz edo gehiago), egitura txertatuak adibideen % 11 dira bakarrik, % 51,7 *zein* erlatiboak dira eta % 37,1 aposatuak.



1. irudia. IAKo, IOko, *zein* erlatiboen eta erlatibo aposatuen erabilera mendeko perpausaren luzera bakoitzeko⁵.

Nire corpuseko datuen arabera, perpaus aposatuen batez besteko luzera aldatu da XVI-XIX. mendeetan: XVI. mendeko testuetan 4,1 hitzekoa zen, 5,5ekoa XVII. eta XVIII. mendean eta 6,1ekoa XIX.ean. Aldaketa interesgarria dirudi, erlatibo txertatuen eta *zein* erlatiboaren luzera berdintsu mantendu zelako denbora tarte berean.

Konplexutasunaren efektua aposatuekin nabarmen izatea horien sintaxiarekin lot daiteke. IOkoak eta aposatuak berdinak dira ardatzaren eta mendeko perpausaren kokapenari dagokionez, baina prosodia ezberdina da. IOko erlatibo txertatua da, baina aposatua ez, ardatza eta mendeko perpausa bereiz baitoaz. Horregatik perpaus luzeekin IOkoek ez duten abantaila dute aposatuek: ardatzaren eta perpausaren arteko tarte. Tarte horrek, hain zuzen, perpaus konplexuagoen ekoizpena eta ulermena erraz dezake. *Zein* erlatiboaren eta aposatuen arteko aldea, aldiz, zailagoa da azaltzen. Alderdi sintaktiko batekin lot daiteke beharbada: *zein* erlatiboan perpausaren hasieran izenordain galdetzaila agertzen da, eta horrek errazten du prozesamendua, izenordainak argi uzten baitu mendeko egitura zer motatakoa den perpausaren hasiera-hasieran; aposatuekin, aldiz, aditza agertzen den arte ezin hori jakin (aditzak menderagailua gehi ardatzarekin lotzen duen kasu-marka baitaramatza).

⁵ Aztertu den perpausen kopurua ez da guztiz berbera egitura bakoitzeko (450 aposatu, 454 IOko, 493 IAKo eta 427 *zein* erlatibo). Horrek, dena den, ez du eraginik deskribatu diren joeretan.

4. ONDORIOAK

Erlatibo aposatua aztertutako testu guztietan agertzen da, egilez egile maiztasuna aldatzen bada ere. Badirudi Larramendiren osteko Hego Euskal Herriko testuetan aposatuen maiztasuna gutxituz doala, aposatu gutxi baitute XVIII-XIX. mendeetako testu batzuek.

Erabilerari dagokionez, erlatibo txertatuek ez bezala, erlatibo aposatuek testuinguru jakin batzuetan agertzeko joera dute. Nire corpusean perpaus aurkezleak, definitzai-leak, existentzialak eta bokatioak dira ohikoenak. Aposatuen erabilera, beraz, diskurtsoaren antolaketarekin lotuta dagoela dirudi: perpaus-mota horietan guztietan erreferente berri bat sartzen da diskurtsoan, eta erlatiboaren bidez ezaugarri batzuk ematen zaizkio. Testuinguru horietan agertzeko joerak azaltzen ditu egituraren beste ezaugarri batzuk. Alde batetik, azaltzen du zergatik duten ardatzak eta erlatiboak gehienetan absolutiboa. Aipatutako perpaus-motetan aditz iragangaitza dugu (*izan* edo *egon*) askotan eta orduan ardatza eta erlatiboa horren argumentu bezala azaleratzen dira. Beste batzuetan, objektu zuzen bezala agertzen dira (**edun* aditzarekin batez ere). Beste alde batetik, perpaus-motak lotuta egon daitezke egituraren erabiltzen diren ardatz-motekin, askotan *bat* mugatzailea baitute.

Egituraren ezaugarri gramatikal batzuk ere deskribatu ditut lan honetan. Erlatiboa gehienetan perpaus nagusiaren amaieran agertzen da, eta normalean erreferentzia egiten dion ISren ondo-ondoan, ardatzaren eta erlatiboaren artean hitz batzuk ager badaitezke ere. Egitura aposatua osatzen duten bi sintagmen artean kasu-komuntadura dugu: aztertutako testuetan normalean biek marka bera daramate (gehien-gehienetan absolutiboa, baina baita partitiboa, ergatiboa eta beste batzuk ere). Erlatibizazioaren murriztapenak direla eta, aukera gutxi onartzen dira aposatuetan: corpuseko testuetan subjektuak eta objektu zuzenak erlatibizatzen dira ia beti (salbuespenak dira inesiboarekin egindako bi adibide, eta datiboarekiko bat). Ez-murrizgarriak izaten dira aposatuak, albuespenak aurki badaitezke ere. Jasotako adibideen proportzio nahiko handi bat erlatibo hautsiak dira. Ardatzak askotan izaten dira bizidunak. Azkenik, IA/IOko erlatiboak baino luzeagoak dira aposatuak, baina *zein* erlatiboak baino laburragoak: 5,6 hitz dute aposatuek batez beste, 3,8/3,5 IA/IOkoek eta 6,4 *zein* erlatiboek.

Ikuspuntu diakronikotik begiratuta, erlatibo aposatuen ezaugarrietan aldaketa txiki baina esanguratsu batzuen zantzuak hauteman dira datuetan. Guztiek, nire ustez, erakusten dute egitura hedatuz joan zela, erabil zitekeen testuinguruei dagokienez, bai eta erlatibiza zitezkeen argumentuei dagokienez. Perpaus-mota berezi batzuetan agertzeko joera oso sendoa da Leizarragaren testuetan; geroagoko testuetan, aldiz, perpaus horietaz gain, bestelakoak ere erraz aurki daitezke. Behin testuinguruak zabaldua, erlatibiza daitezkeen kasuen eta postposizioen aukera ere hasi zen handitzen, eta absolutiboaz eta ergatiboaz gain beste marka batzuen gainean eraikitako erlatibo aposatuak aurkitzen ditugu testuetan. Bestalde, ikus dezakegu mendeko perpausaren luzera handitu zela aztertutako denbora tartean, horrela egituraren sintaxiak ematen dituen «abantailak» aprobetxatuta. Aldaketa horiek lotuta egon daitezke beste alderdi batekin

ere: erlatibo aposatuak murrizgarriak izateko aukerarekin. Testuetako datuekin hori frogatzea zaila bada ere, pentsa genezake aukera hori zerbait berria izan daitekeela, egituraren hedaduraren beste alderdi bat. Horrelako aldaketak beste hizkuntza batzuetan deskribatu dira: ardatzaren eta hori ezaugarritzen duen perpausaren arteko lotura askeagoa duten erlatibo aposatuak erlatibo txertatu bihur daitezke (ikus, esaterako, Hopper & Traugott, 2003; Givón, 2009, 2012), eta prozesu horren adierazleetako bat erlatibo murrizgarriak eratzeke aukera izan daiteke.

Amaitzeko, esan dezadan hemen egin dudana azterketa diakronikoaz gain, gaur egungo erabileraren analisia ere beharko genukeela, hemen aipatu diren joerak betetzen diren ikusteko eta, oro har, egituraren estatusa gaur egungo hizkuntzan (idatzian zein ahozkoan) zein den jakiteko.

5. LABURDURAK

APO	erlatibo aposatua
Ax	Axular
Belap	Belapeire
BerM	Beriain (<i>Tratazen da...</i>)
Bet	Betolatza
DoktrErr	<i>Doctrina Christiaia</i>
Etxep	Etxepare
frBart	frai Bartolome
Haranb	Haranburu
Harand	Haraneder
Intxpe	Intxauspe
IA	izen aurreko erlatiboa
IO	izen osteko erlatiboa
IS	izen-sintagma
Kap	Kapanaga
LeizTest	Leizarraga (Testamentu Berria)
Lizarg	Lizarraga
Mat	Materra
Mikel	Mikelestorena
Mst	Maister
OA	Otxoa Arin
VJ	<i>Viva Jesus</i>
Volt	Voltoire

6. ERREFERENTZIAK

Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2010). *Lazarraga eskuizkribua: Edizioa eta azterketa (1.0)*. <http://www.lazarraga.com> helbidetik eskuratua.

- Cid Abasolo, C. (d. g.). Perpaus erlatiboak. In Euskara Institutua (arg.), *Sareko Euskal Gramatika*. <https://www.ehu.eus/seg/morf/5/20/4> helbidetik eskuratua.
- Cid Abasolo, C. (1987). Euskal erlatibo motak. *ASJU*, 21(2), 599-628.
- De Rijk, R. P. G. (1972a). Relative clauses in Basque: A guided tour. In *De lingua vasconum: Selected writings* (55-69. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- De Rijk, R. P. G. (1972b). Studies in Basque syntax: Relative clauses. In *De lingua vasconum: Selected writings* (71-149. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Dryer, M. S. (2007). Clause types. In T. Shopen (arg.), *Language typology and syntactic description* (1. libk., 224-275. or.). Cambridge: Cambridge University Press. DOI: <https://doi.org/10.1017/CBO9780511619427.004>
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-V* (1. libk.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fox, B. A. & Thompson, S. A. (1990). A discourse explanation of the grammar of relative clauses in English conversation. *Language*, 66(2), 297-316. DOI: 10.2307/414888
- Givón, T. (2009). *The genesis of syntactic complexity: Diachrony, ontogeny, neurocognition, evolution*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/z.146>
- Givón, T. (2012). Toward a diachronic typology of relative clause. In B. Comrie & Z. Estrada Fernández (arg.), *Relative clauses in languages of the Americas: A typological overview* (3-25. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/tsl.102.01giv>
- Hopper, P. J. & Traugott, E. C. (2003). *Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Keenan, E. L. & Comrie, B. (1977). Noun phrase accessibility and universal grammar. *Linguistic Inquiry*, 8(1), 63-99.
- Krajewska, D. (2016). Euskarazko erlatiboen diakroniaz: testu zaharren azterketa. *FLV*, (122), 463-488.
- Krajewska, D. (2017). *Euskararen sintaxi diakronikorantz: Egitura konplexuak / Towards a historical syntax of Basque: Complex constructions* (doktoresia, UPV/EHU). <http://hdl.handle.net/10810/26877> helbidetik eskuratua.
- Krajewska, D. (2018). «Zein» erlatiboaren historia. *ASJU*, 52(1/2), 411-435. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.20211>
- Krajewska, D. (prentsan). *Euskarazko egitura erlatiboen diakronia. Zenbait ezaugarri gramatikal*.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Uribe-Etxebarria, O. & Reguero, U. (2017). *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana. Edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz & Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (1996). *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (1999). L'interprète ou traduction du français, espagnol & basque (1620): II. Elkarrizketak. *ASJU*, 33(2), 493-568.
- Lehmann, C. (1984). *Der Relativsatz: Typologie seiner Strukturen, Theorie seiner Funktionen, Kompendium seiner Grammatik*. Tübingen: Gunter Narr.
- Lehmann, C. (1986). On the typology of relative clauses. *Linguistics*, 24(4), 663-680. DOI: [org/10.1515/ling.1986.24.4.663](https://doi.org/10.1515/ling.1986.24.4.663)

- Mitxelena, K. (1990). *Textos arcaicos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oyharçabal, B. (1987). *Etude descriptive de constructions complexes en basque, propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives* (doktore-tesia). Université de Paris VII, Paris.
- Oyharçabal, B. (2003). Relatives. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (762-821. or.). Berlin: Walter de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.195>
- Padilla-Moyano, M. (prest.). *Oloroeko katixima: edizioa eta azterketa*.
- Pagola, R. M., Iribar, J. J. & Iribar, I. (arg.). (1997a). *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Erronkariara*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Pagola, R. M., Iribar, J. J. & Iribar, I. (arg.). (1997b). *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Zuberera*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Rebuschi, G. (2003). Basque semi-free relative clauses and the structure of DPs. *Lapur-dum*, 8, 457-478. DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1172>
- Ulibarri Orueta, K. (2010). *Viva Jesus* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU*, 44(2), 41-154.